

UPV/EHUn Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Probak (2022-2023)

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzena edo egokiena, eta idatz ezazu ariketa honen amaierako (8. orrialdean) erantzun-taulan bakoitzari dagokion letra. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

1. *Anek auto berria erosi du; lanean ondo irabazten du, _____. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?*

- a) esango nuke
- b) halaber
- c) nonbait
- d) uste dut

2. *Esaldi hauen artean, zein dago OKER?*

- a) Gure alderdiak iruzur egin duelaren susmoa zabaldu da herrian.
- b) Gure alderdiak iruzur egin duelako susmoa zabaldu da herrian.
- c) Gure alderdiak iruzur egin duela susmatzen dute herrian.
- d) Gure alderdiak iruzur egin duen susmoa zabaldu da herrian.

3. *Gureak egin du/ Esaldi hauen artean, zein da baliokide zuzena?*

- a) Ez daukagu zer eginik.
- b) Ez daukagu egitekorik.
- c) Ez daukagu zer egitekorik.
- d) Ez daukagu ezer egiteko.

4. *Beste _____ ikasleak nahi ditugu gure eskolan. Zein da hutsunea betetzeko aukera egokiena?*

- a) motako
- b) mota bateko
- c) motatako
- d) mota batetako

5. *Esaldi hauen artean, zein da zuzena?*

- a) Pellotaz esan dituzten guztiak okerrak dira.
- b) Etxeko lan guztiak biharkorako egin behar dituzu.
- c) Bere gurasoengandik maitatua hazi zen Jon.
- d) Zuzendari hautatu dutenetik, lanpeturik dabil Eider.

6. *Data hauen artean, zein da zuzena?*

- a) Irunen, 2023ko Martxoaren 11ean.
- b) Irun, 2023ko martxoak 11n.
- c) Irun, 2023ko martxoaren 11a.
- d) Irun, 2023ko martxoaren 11.

7. Esaldi hauen artean, zein da egokiena?

- a) Barkatu! Zeharo ahaztu egin dut zure mandatua.
- b) Hil honetan lau liburu irakurri egin ditut.
- c) Erlojuaren truke dirutza handia eman egin zioten.
- d) Alokatu ez; erosi egin zidaten etxea.

8. *Ez didazu barrerik egingo, _____, kaiku horrek!* Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) ezta pentsatu
- b) bakarrik falta da
- c) ez horixe
- d) ez da posiblea

9. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Eskerrak sufrikario hau laster amaituko den!
- b) Hainbat eta goizago oheratu, orduan eta hobeto egiten da lo.
- c) Saria eman dietenei oso pozik jarri dira.
- d) Badago ume bat haserretzean lagunak jotzen dituela.

10. Hiztegi batua aintzat hartuz, aukeratu zuzena.

- a) Nekazal turismoa.
- b) Merkataritza zentroa.
- c) Azterketa medikua.
- d) Anbulategia.

11. *Zuek baino lehenago _____, saria eraman dugu.*

- a) iritsi ezkerro.
- b) iritsiz gero.
- c) iritsi baitgara.
- d) iritsi garenez gero.

12. *Nora joango zarete datozen oportetan?* _____.

- a) Landetara.
- b) Bizkaiara.
- c) Donostira.
- d) Kanariasetara.

13. *Astebururako abisu horia iragarri dute; _____, ez gara etxean geldituko.*

- a) alajaina
- b) alabaina
- c) halaber
- d) alegia

14. *Erabakia partaide guztien adostasunez hartu da; alegia, _____.*

- a) aho batez.
- b) aho batasunez.
- c) aho betean.
- d) aho bete hortz.

15. Akatsak akats, itxurazko lana ondu duzu; alegia, _____.

- a) lanak akatsak izateaz gain, itxurak egiteko egin duzu.
- b) itxurari baino gehiago akatsak ez egiteari begiratu diozu.
- c) akatsen batzuk baditu ere, ontzat emateko moduko lana egin duzu.
- d) lanak akats asko ditu, baina badu zerbaiten antza.

16. _____ interesgarria _____ liburu hori! Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) Zelako / da
- b) Zeinen / dela
- c) Nolako / da
- d) Zein / den

17. _____ ikasten da testu onak osatzen. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) Idatziz
- b) Idazten
- c) Idazteagatik
- d) Idazteaz

18. Zu ez beste guztiak joan ziren zinemara. Zein esaldik adierazten du zuzen gauza bera?

- a) Zu izan ezik, denok ere joan ziren zinemara.
- b) Zu ez ezik, denok joan ziren zinemara.
- c) Denak joan ziren zinemara, zu izan ezik.
- d) Denak joan ziren zinemara, zu baizik.

19. Zortzi eta erdietako _____ zutik etorri naiz. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) autobusez
- b) autobusean
- c) autobusaz
- d) autobusan

20. Aizu, _____ ogia, mesedez? Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) gerturatuko didazu
- b) gerturatzen didazu
- c) gertura ieza dazazu
- d) gertura ahal didazu

21. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Besterik gabe, agurtzen naiz.
- b) Ez dira elkar ezagutzen.
- c) Elkar bazkaltzen dute ostegunero.
- d) Ez dute elkar ezagutzen.

22. Honako hauetatik zein dago ondo idatzita?

- a) Gende ixila.
- b) Textu mordoltoa.
- c) Imaginazio asekaitza.
- d) Erreportaje luzea

23. Nola idazten da 2.681 zenbakia?

- a) Bi mila seiehun eta laurogeita bat.
- b) Bi mila seirehun eta larogeita bat.
- c) Bi mila seirehun eta laurogei ta bat.
- d) Bi mila seiehun eta larogeita bat.

24. Honako hauetatik zein dago ondoen idatzita euskara batuan?

- a) Jaio berriek ez dute haginik.
- b) Nazio arteko biltzarra egin berri dute.
- c) Prentsaurreko zalapartatsua izan da.
- d) Ordurarte ez naiz itzuliko.

25. Honako hauetatik zein dago ondo idatzita?

- a) Aurtengo gabonetan etxetik urrun ibiliko naiz.
- b) UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko dekanoa da.
- c) EAEko Foru Aldundiek elkarlanean dihardute.
- d) Norvegiarrek eta Danimarkarrek Historia amankomuna dute.

26. Honako hitz elkartu hauetatik zein EZ dago ondo idatzita?

- a) Giza-eskubideak.
- b) Itsasertza.
- c) Hizkuntza eskakizuna.
- d) Hizkuntza-eskakizuna.

27. Gaur zenbat _____ egin duzu topo? Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) neskekin
- b) neskarekin
- c) mutikokin
- d) mutikoekin

28. Filmean, protagonista _____ bilakatzen da amaieran. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) otso
- b) otsotan
- c) otsoan
- d) otsoa

29. Hain da tripontzia, _____ oilasko osoa janda ere ez _____ aseko. Zein da hutsuneak betetzeko aukera zuzena?

- a) non / litzatekeela
- b) ezen / bailitzateke
- c) zeren / bailitzatekeela
- d) zergatik / baita

30. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Zenbait kasutan ezinbestekoa izaten da gezurra esan.
- b) Esan ziguten bertan itxarotea, badaezpada ere.
- c) Hamaika aldiz esanagatik geldirik egoteko, alferrik.
- d) Medikuatik aginduta, astebete eman zuen ohean.

31. *Nire autoa ez da _____, eta ez dut _____ zaintzen. Zein da hutsuneak betetzeko aukera zuzena?*

- a) zurea bezala / zu bezala
- b) zure moduan / zu bezala
- c) zure modutakoa / zurea legez
- d) zurea bezalakoa / zuk bezala

32. Zein dago zuzen idatzita?

- a) Etxe eder batetan bizi dira lagunak.
- b) Batzutan oso bakarrik sentitzen naiz.
- c) Leku garai batetik hobeto ikusten da herria.
- d) Lagun bateri galdetuko diogu.

33. Zer zerrendatan dago hitz bat tokiz kanpo?

- a) adorea / kemenen / ausardia
- b) lurraldea / eskualdea / herrialdea.
- c) belauna / pikondoa / ukondoa
- d) maizterra / jabea / etxegabea

34. *Sistema honen funtzionamenduak _____ hauek bete beharko ditu: kalitatea, baliabideen aprobetxamendu optimoa eta prozeduren hobekuntza.*

- a) irizpide
- b) hizpide
- c) irizkide
- d) euskarri

35. *Entzierroaren irudi batek _____ ditu aurtengo sanferminak.*

- a) igorriko
- b) iragarriko
- c) iragaziko
- d) iradokiko

36. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Gurasoek udalekuetara joanarazi zizuten.
- b) Gurasoak udalekuetara joanarazi zizuten.
- c) Gurasoek udalekuetara joanarazi zintuzteten.
- d) Gurasoek udalekuetara joanarazi zenituzten.

37. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Zure hitzek min egin didate.
- b) Egun horretan irakaskuntzan dihardutenak jaia izaten dute.
- c) Jende asko programa hori atsegina du.
- d) Denda batean lana egiten dut.

38. *Lau _____ ikusi genituen, eta _____ egin genien agur. Zein da hutsuneak betetzeko aukera zuzena?*

- a) neskati / lauri
- b) neskati / lauri
- c) neskati / lauri
- d) neskati / lauri

39. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Basoaren zehar zebilela galdu zen.
- b) Ez dut lanaren buruz gehiago hitz egin nahi.
- c) Altxor ezin preziatuagoak aurkitu zituzten itsasoz bestaldean.
- d) Beste zereginik ez eta itsasoaren begira pasa genuen goiz osoa.

40. _____ hiru urte zuen etxean izan _____ uda pasatzen. Zein da hutsuneak betetzeko aukera zuzena?

- a) Ditu / ginen
- b) Badira / ginela
- c) Baditu / ginenetik
- d) Baditu / ginela

41. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Hain zegoen edanda, ez zuela autoa aurkitu ere.
- b) Ongi damutu zaio lana garaiz ez egitearren.
- c) Eztanda batek esnatu zuen, non lehergailu batengatik izan zen.
- d) Han bazegoen zuhaitz luze bat, zeinen adarretatik izarrak eskitzen baitziren.

42. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Bai hemen nahiz beste edonon izango dituzu lagunak.
- b) Urteurrenko bazkaria datorren asteburuan egitekoak dira.
- c) Ez dago horrenbeste erosotasun hotelean bezala.
- d) Irla asko kanpotarrak erakartzeko prestatutak daude.

43. *Belauneko _____ odola _____ etengabe.*

- a) zauritik / ari zaio
- b) zauriari / dario
- c) zauriak / dirau
- d) zauriari / ari zaio

44. Zein EZ da kalko desegokia hurrengo esaldien artean?

- a) Mikel bezala, ni ere irakasle naiz.
- b) Irakasle bezala egiten dut lan eskola batean.
- c) Kalte txikiena bezala hartuko dugu.
- d) "Cubanito" bezala ezagutzen dute bere lagunak.

45. Hitz multzo hauetan, zein dago ondo idatzia?

- a) Hurrengoia, urrun, hurbil, orria.
- b) Iparraldea, pakea, alperrik.
- c) Zentroa, atomoa, institutoa.
- d) Gauz bat, anai bat, tontakeria bat.

46. Esaldi batean EZ dago ortografia akatsik. Zeinetan?

- a) Lehoiak hies egin zuen lehiotik.
- b) Lehoiak ihes egin zuen leihotik.
- c) Lehoiak ihes egin zuen leihotik.
- d) Lehoiak ihes egin zuen lehiotik.

47. Honako hitz elkartu hauetatik zein dago ondo idatzita?

- a) Erdi-Aroa
- b) Zurrumurrua
- c) Ikusi makusi
- d) Ozta ozta

48. Esaldi hauetatik zein da zuzena?

- a) EAEko herritarren % 80 neurri horren aldeko dira.
- b) Irakasle bat UPV/EHUtik AEBeko MITra joan da.
- c) Maratoia 42,195km. luze da.
- d) Saturnok 26,7° ko inklinazioa du.

49. Zein dago GAIZKI idatzita?

- a) Arrakasta handia izaten ari da *Irati* filma.
- b) *Elhuyar* aldizkariak sortu zeneko 50. urteurrena bete berri du.
- c) Laburdurak, esaterako, *etab.*, *adib.* edo *or.* puntuz idazten dira orokorrean.
- d) XIX mendeko autore batena da Parnasorako bidea.

50. Puntuazioa. Zein dago zuzen idatzita?

- a) Gure ustez gaizki jokatu dutelako, ez diegu aldeko botoa emango.
- b) Irakasleen artean ohikoa da pentsatzea, ikasleek gero eta maila eskasagoa dakartela.
- c) Uste baino beranduago bukatuko dugu lana, izan ere, aurreikusi gabeko arazoak sortu baitzaizkigu.
- d) Kaixo Mikel, (gutun baten hasierako agurra).

AUKERA ANITZEKO GALDERAK: ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu arretaz hiru testu hauek. Bakoitzaren amaieran, hari buruzko galderak dituzu. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra, eta adieraz ezazu erantzun zuzenari dagokion letra hiru testuen ondoren (14. orrialdean) dagoen erantzun-taulan. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

1. TESTUA:

Hiriak berdatzeak diskriminazio soziala areagotzen duela frogatu dute

Hirietan eremu berdeak sortzean edo zeudenak bere onera ekartzean, ingurua gentrifikatu egiten dela frogatu dute Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan egindako ikerketa batean. Hau da: berdatzeak maila ekonomiko altuko pertsonak erakartzen ditu; etxebizitzaren prezioak igo egiten dira; eta maila ekonomiko apalagoko jendea kanporatu egiten da. Ondorio horretara iritsi dira, sei urtez Europako, Kanadako eta AEBko 28 hiriren bilakaera aztertuta. [*Nature Communications* aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak.](#)

Ikerketan, egileek gogorarazi dute hiriak berdatzeak onura nabarmenak dakartzala osasunean, kliman, eta ekonomian. Alabaina, azterketak agerian jarri du banaketa eta eskuragarritasuna ez direla ekitatiboak. Hain zuzen, 28 hirietatik 17tan berdatzeak gentrifikazioa ekarri zuen, bereziki AEBn eta Kanadan, han Europan baino ahulagoak direlako politika sozialak eta etxebizitzaren merkatuaren gaineko kontrola.

Hala, frogatu dute 1990-2000. urteetan hiriak berdatzeko egin ziren lanek harreman zuzena dutela 2010eko hamarkadan gertatu zen gentrifikazioarekin. Eremu berdeak sortzeak edo berreskuratzeak hiritar zaurgarrienak baztertu zituen, batez ere migratzaileak eta pertsona arrazializatuak. Erlazio hori zuzena da Atlantan, Kopenhagen, Montrealen, Nantesen eta Vancouverren, adibidez.

Beste leku batzuetan, berdatzea hiriaren berrantolaketari lotuta joan da, hazkunde ekonomikoa helburu zutela. Kasu horietan, beraz, berdatzearen eta gentrifikazioaren arteko erlazioa ez da hain zuzena, beste faktore batzuk ere lagundu baitute gentrifikazioan. Hori gertatu da, esaterako, Bartzelonan, Bostonen, Denverren, Edinburgon, San Frantziskon eta Seattlen.

Eta zenbait hiritan ez dute erlazioirik ikusi, adibidez, Valentzian. Ikertzaileen ustez, kasu horretan, auzoetan parke txikiak egin izana lagungarria izan da gentrifikazioa ez gertatzeko.

Horrenbestez, ikertzaileek ondorioztatu dute hiriak berdatzea ez dela txarra, alderantziz baizik; baina eremu berdeak sortzean edo berreskuratzean, ezinbestekoa dela ekitateari eta justiziari lehentasuna ematea, ez bada bazterkeriarik eragin nahi.

Ana Galarraga Aiestaran
Elhuyar (2023) (moldatua)

GALDERAK:

1. Testuaren arabera, zein baieztapen da egia?

- a. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan sei urtez iritsi dira ondorio berera: hiriguneak berdatzeak gentrifikazioa eragiten du.
- b. Ikerketa batean frogatu dutenez, hiriak berdatzeak badu ondorio txarrik.
- c. *Nature Communications* aldizkarian argitaratutako emaitzen arabera, eremu berdeak sortzeak hiriak bere onera dakartza.

2. Ikertzaileek gogorarazi dute...

- a. hirien berdatzeak eragin positiboak izan badituela, baina ez zaizkiela berdin iristen herritar guztiei.
- b. banaketa eta eskuragarritasun ez-ekitatiboak 28 hiritik 17tan gentrifikazioa ekarri zuela.
- c. AEBn eta Kanadan Europan baino ahulagoak direla politika sozialak eta etxebizitzaren merkatuaren gaineko kontrola.

3. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan egindako ikerketatik ondorio hau atera daiteke:

- a. Hiriak berdatzeko lanen helburu nagusia gentrifikazioa dela.
- b. 1990-2000. urteen artean eremu berdeak sortu edo berreskuratu zituztela migratzaileak eta pertsona arrazializatuak baztertzeko.
- c. 1990-2000. urteetan hiriak berdatzeko egin ziren lanek 2010eko hamarkadako gentrifikazioarekin zerikusi zuzena dutela kasu askotan.

4. Ikerketaren emaitzak laburbilduz...

- a. hiriak berdatzea ona da, betiere.
- b. gentrifikazioa saihesteko ekitatea eta justizia zaindu behar dira, Valentzian egin duten bezala.
- c. Hirietan berdeguneak sortzeak diskriminaziorik ez eragiteko ekitatea eta justizia lehenetsi behar dira.

2. TESTUA:

Bertan ikusia

Asteburu honetan ikusi dut lehen aldiz. Antton Olariaga edo Unai Iturriaga izan nahiko nukeen une hartan, bazuelako ikusiak umore grafikotik asko. Nire kontalari senaz askietsi beharko duzue. Atzealdetik ikusi nituen. Bikote bat, aita eta ama segur aski. Bien artean zeramaten ume-karroa gider banari helduta. Amak ezkerreko eskuaz eusten zion eta aitak eskuinekoaz. Pauso geldoan zihoazen, pasieran. Amak libre zeukan eskuan sakelakoa zeraman aurpegiaren pare-parean, hari begira ari zen eta. Aitak libre zeukanarekin gauza bera. Koreografia bat ia...

Hurrengo binetan, gai banintz, aurrealdetik begiratuta marraztuko nukeen koadro bera. Ume bat, urte eta erdikoa edo, orgatxoaren aulkian eserita, bi eskuez sakelakoa hartu eta musuaren parean duela. Alde banatan, aita eta ama, aurpegiak doi-doi ikusten zaizkiela.

Eta hirugarrenean, erreportari bat, mikrofonoa hartuta, bi helduei galderak eginez. «Ez gara damutu oporretarako leku hau aukeratu izanaz. Paraje zoragarriak dira, eta jendea oso atsegina», bota du aitak. Amak, «irtenaldi honek gure harremanak sendotzeko balio izan du, eguneroko bizitzan elkarrengandik oso aparte ibili behar izaten dugu eta». «Pintxoak probatu al dituzue?», galdetu die kazetariak, irudimen ariketa latza eginez.

Andoni Egaña
Berria (2023)
(moldatua)

GALDERAK:

5. Testuaren arabera, zer enuntziatu da OKERRA?

- a. Andoni Egañak ikusitako egoera bat bere irudimenez nahastuta kontatzen du artikuluan.
- b. Andoni Egañari umorista grafikoa izatea gustatuko litzaioke etorkizunean, Antton Olariaga edo Unai Iturriaga bezala.
- c. Andoni Egañaren hitzetatik ondorioztatzen denez, trebeagoa da kontalari gisa marrazkilari gisa baino.

6. Ikusitakoa eta umore grafikoa lotzen ditu Egañak bere artikuluan...

- a. ikuskizunaren ikuspegi desberdinak jaso ditzakeelako horrela, binetatan.
- b. bere kontalari senari jarraituz.
- c. iruditzen zaiolako deskribatzen duen ikuskizuna komiki baterako modukoa dela.

7. Egañak ikusitakoaren arabera, zein baieztapen da egia?

- a. Aita eta ama izango ziren bikote bat zihoazen, tartean umea kotxetxoan, nor bere aldetik sakelakoari begira-begira.
- b. Gurasoekin ume-karroan zihoan haurrak ere mugikorra zeraman begien aurrean.
- c. Kazetari batek elkarrizketa egin zien gurasoei.

3. TESTUA:

Malawiko emakume nagusiak, sorginkeriaren jomugan

Azken urteetan ugaritu egin dira Afrika hegoaldeko ustezko sorginkeriaren aurkako erasoak. Malawiko kasua egin da ezagunena; bertan, ohikoak dira ustezko sorginei emandako jipoiak. Erasoen biktimak jende heldua dira, eta emakumeak, ia guztiak. 2019tik behintzat 75 lagun hil dituzte arrazoi horregatik; aurten, gutxienez bost. Legez, sorginkeria ez da existitzen han, britainiar kolonoen herentziaz, baina herritarren artean sinesmena guztiz zabalduta dago.

Herrialdeko zenbait erakundek kezka adierazi dute eraso horiek jende nagusiaren aurka doazelako. Jendearen ezbeharren errudun egiten dituzte sorginkeria leporatzen dieten pertsonak, eta jipoitu, hil edota etxegabetu egiten dituzte. Praktika horiek, batez ere, landa eremuko lurraldeetan egiten dira, hiriburutik urrun daudenetan, eta horrek zaildu egiten du giza eskubideen alde dabilzan erakundeen esku hartzea.

“Herri justizia” izengoitia hartu dute eraso horiek; uste dute emakume nagusi horien errua dela edozein ezbehar eta beren aurka egitea bidezkoa dela. Kontua da eraso horien biktimak, oro har, emakume nagusiak direla. Kasu horretan, agintarien esku hartzea zaila da, jendearen sinesmenetan ez dutelako sartu nahi; baina, era berean, kolektibo jada zaurgarri bat ari direlako are gehiago baztertzen.

Lege koloniala

Eztabaida bizia da Malawin: alde batetik, biztanle gehienek sinisten dute sorginkeria, eta horri botatzen diote ezbeharren errua; bestetik, sinestea ofizialki ez existitzeak dakar berau ezin epaitzea, eta, beraz, lege ezin debekatzea. 1911n sortu zuten sorginkeriaren aurkako legea, britainiar kolonia zirela, eta egun ere lege hori dago indarrean. “Praktika arriskutsuak” galaraztea zuen helburu, bere premisa baita sorginkeria ez dela existitzen.

Egun, legea moldatzeko saiakerak izan dira, batez ere sorginkeria existitzen ez dela dioen zatia aldatzekoa. Zenbait txostenetan baieztatu dute sinesmen sendoa dagoela herrialdean, eta horretan sineste hutsak egiten duela erreal. “Legeak ezin ditzake jendearen sinesmenak zapaldu”, azaldu du Robert Chinangwa Auzitegi Goreneko epaile eta txostena egin duen batzordearen buruak.

Horrela, bada, gomendioa argia da: lege onartu behar dute sorginkeria existitu egiten dela. Horrek lagun dezake, batzordearen hitzetan, jendeak justizia bere kabuz har ez dezan.

MARIA ORTEGA ZUBIATE

Argia 2023 (moldatua)

GALDERAK:

8. Malawiko ustezko sorginen aurkako erasoak direla eta...

- a. 2019tik hona, gutxi gorabehera 70 emakume eta bost lagun hil dituzte.
- b. aurten 75 biktima izan dira gutxienez.
- c. testua idazterako, 2023an, baziren bost hildako behintzat.

9. Testuaren arabera, zein baieztapen da egia?

- a. Jipoi, heriotza edota etxegabetzei "Herri justizia" deitzen diete erasotzaileek.
- b. Agintarien esku hartzea zaila da "Herri justizia" bidezkoa delako.
- c. Biztanle gehienek sorginkerian sinisten badute ere, ezin dute existitzen dela frogatu.

10. Jendeak justizia bere kabuz har ez dezan, ...

- a. Robert Chinangwak gomendatu du legez onartzea sorginkeria existitu egiten dela.
- b. ezin daitezke jendearen sinesmenak zapaldu.
- c. txostena egin du batzordearen buruak.

IRAKURIAREMN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

3. ARIKETA: IDAZLANA

Azpiko taulan aukeran dituzun gaietako BAT hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osotik), eta gutxienez **300 hitzeko** idazlan bat egin, euskara batuan. Unibertsitateko irakasle-talde baten aldizkarirako (A aukera) edo eskolak emateko apunte bezala (B aukera). Nahitaezkoa da ongi lotzea idazlana azpiko zerrendako gaien artean aukeratzen duzunari.

ARLOA	GAIAK: aukeratu zure arloko bi aukeretako bakar bat	
Arkitektura	Egitura metalikoak eta zurezko egiturak: nola eragiten die suak?	Zerk eragiten du etxebizitzaren salneurriaren igoera?
Artea	Eiffel dorrea eta Bizkaia zubia	Tresna eta teknika berriak gaurko artean: arte digitala, argazkigintza...
Biologia	Badu garrantzirik biologoen lanak gizartearen aurrerapenari eta hobekuntzari begira?	Metabolismo energetikoa. Mitokondriak. Kloroplastoak
Ekonomia	Enpresa motak ekonomia kapitalistan	Inflazioa
Filologia	Lexikografia eta ondare lexikoa: maileguak eta kalkoak	Euskararen jatorria
Filosofia	Euskal filosofoak	Filosofiaren ekarpena hezkuntzan
Fisika	Energia berriztagarriak	Newtonen legeak
Geografia	Uholdeak: hondamendi naturalak ala gizakiak eragindakoak?	Hiri-geografia
Geologia	Petrologiarako sarrera: arroka motak, prozesu geobiologikoak, kristal biogenikoak, biosedimentazioa...	<i>Fracking</i> -a: kontzeptua eta ondorio geologikoak.
Gizarte-zientziak	Zer aztertzen du soziologiak?	Genero-arazoak gaurko gizartean
Heziketa fisikoa	Futbola: kirola ala negozioa?	Gorputz-heziketa hezkuntza-sisteman
Historia	Greziar demokrazia	Gerra Hotza
Informatika	Kriptografia eta datuen babesa	Adimen artifizia
Informazioa	Ordainduta ikusteko programak ala publizitatearen bidez finantzatutakoak?	Euskarazko hedabideak gaur egun
Kimika	Termodinamika kimikoa	Polimeroak
Kriminologia	Gorrito-delituak: zer dira? zer egin liteke gaur egungo gizartean haiek prebenitzeko?	Segurtasun-kamerak nonahi?
Lan-harremanak	Lan-gatazkak: sindikatuen egitekoa	Langileen eskubideak eta betebeharrak
Matematika	Probabilitatea	Zer dira fraktalak?
Osasuna	HIESA. Menderatzea lortu da?	Elikadura sendagai
Pedagogia	XXI mendeko irakaslea: rol-aldaketa	Hezkuntzaren alde soziala
Psikologia	XXI. mendeko patologiak	Psikologoa eta psikiatra: aldeak eta parekotasunak
Teknologia	Produktuaren bizi-zikloa, diseinua eta ergonomia	Garraioa eta garapen iraunkorra
Zuzenbidea	Lan-jazarpena (<i>mobbing</i> -a)	Oinarrizko errenta herritar guztiontzat

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):

AZTERKETARIA: **NAN-**
zenbakia:

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)	EZGAI (< 32)	

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)	EZGAI (< 6)	

Idazlana

GAI	EZGAI
-----	-------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZGAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZGAI
-----	-------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO

Azterketaria:

(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: